**1 / 6**
Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak arriskurik handiena.

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago LABORAL Kutxa, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoari. Gaur egun, 100.000 euroko gehienezko zenbatekoa bermatzen dio Funts horrek gordailugile bakoitzari.
Adierazle hori EPERAKO GORDAILUEI eta KONTUEI dagokie.

Inbertitutako kapital osoaren edo zati baten diru-itzultzea, erreskatea edo itzulketa aurreratua eginez gero, komisioak edo zigorrak ordaindu beharko dira.

Likidezia-alerta EPERAKO GORDAILUETARAKO da.



# DIBERFLAZIOA VS AURREZKIA




**Dibertsioa + inflazioa**
Prezioak gora eta gora doaz, baina horrek ez digu bizitzaz gozatzeko gogoa kentzen. Oraina bizitzea tentagarria bada ere, garrantzitsua da aurrezteari ez uztea.

COVID-19aren ondoren eta inflazioa goraka, unean unekoa bizi nahi dugu. Baina, YOLO (You Only Live Once) filosofia erakargarria bada ere, orainaz gozatzearen eta geroaz arduratzearen arteko orekari eustea gomendatzen dizugu.

## BIZITZEARI utzi gabe AURREZTEKO AHOLKUAK:

**PRO aholkua**
**70/30**
aurrezteko, beharrezko gastuetarako eta finantza-koltxoirako
bizitza ematen dizun horretan gastatzeko

### 1 Egin zure gastu dibertigarrien aurrekontua
Jarri hileko muga bat, zure irteera eta entretenimenduetarako. Gozatu damurik gabe, zure ahalbideen barruan gastatzen ari zarela jakinda.

### 2 Aprobetxatu eskaintzak eta deskontuak
Bilatu sustapenak, gehiegi gastatu gabe gozatu ahal izateko gustatzen zaizunaz. LABORAL Kutxaren Bezeroaren Klubean 300etik gora markatan aurkituko dituzu deskontuak.

### 3 Berrantolatu zure finantza-lehentasunak
Lagunekin ihesaldi hori egitea ezinbestekoa da, baina baita larrialdietako funts bat duzula jakitea ere. Planifikatu gastuak, identifikatu non murriztu ditzakezun eta erabili aurreztutako dirua ongizatea hobetuko dizuten esperientzietarako.

### 4 Aurrezki adimenduna zuretzat
Etorkizunak zalantzazkoa edo urruna dirudien arren, gaur aurrezteak askatasun handiagoa emango dizu bihar. Baliatu automatikoki eta ia konturatu gabe aurrezteko aukera ematen dizuten banku-tresnez. Horrela, orainaz gozatzen jarraitu ahal izango duzu, finantza-koltxoi bat osatu ahala.



Ahaleginean hil gabe
## AURREZTEKO BI MODU ERRAZ
Zein da zurea?

## 1 HELBURUAK BETETZEKO AURREZTEA

AURREZKI-KONTUA
### AurrezKlik &: zure helburua, zure estiloa

**Eman lehentasuna benetan zoriontsu egiten zaituenari, eta aurreztu zure erritmora**

**FINKATU ZURE HELBURUA**
Bidaia epiko bat ala hainbeste irrikatzen duzun tresna hori? **Eman bizitza zure ametsari!**

**IZENDATU ZURE KONTUA**
Pertsonalizatu, nahi duzun bezala: **«AURREZKLIK & Sekulako oporrak»** izenak soinu ederra du.

**AURREZTU LAGUNIK ONENEKIN**
**Partekatu zure kontua** eta animatu lagunak bat egitera. Elkarrekin dibertigarriagoa da!

**ZURE KASA**
Aukera duzu **aurrezte-erritmoa edonoiz egokitzeko** eta dirua nahi duzunean ateratzeko.

**BILAKAERA BEGIEN BISTAN**
**Kontsultatu grafikoak, zure aurrerapenak ikusteko.** Telesail bat ikustearen parekoa da, baina diruarekin!

**PLANIFIKATU OZTOPORIK GABE**
Erabaki zenbat eta noiz aurreztu. **Lotu dena:** helburua, zenbatekoa, epea eta erritmoa.

## 2 OSATU ZURE LARRIALDIETAKO FUNTSA

GORDAILUA
### NET>GO! Aurrezkia: zure dirua, zure modua

**Ordenagailua hondatzen bazaizu, lanik gabe gelditzen bazara... dramarik ez!**

**AURREZTU ZURE ERRITMORA**
**Hilean 30 €-tik 1.000 €-ra bitartean**, zeuk erabaki. Zure finantzen jaun eta jabe zara!

**KOMISIORIK GABE!**
Dena argi eta garbi, ezin hobe. **Aurreztu zure erara!**

**INTERES HARRIGARRIEKIN**
**% 3ko UTBa* lehen urtean**. Jarri zure dirua lanean zuk gozatzen duzun bitartean!

**ESKURATZE AZKARRA**
**Eskudirua behar duzu berehala?** Atera ezazu nahi duzunean!**

Adibidez, **hilean 200 €** sartzen badituzu zure **NET>GO! Aurrezkian, 2.400 €** metatuko dituzu urtebetean, eta **31,66 €-ko interesak** jasoko dituzu*.

**DENA KLIK BAKARREAN**
Nahikoa da **Online Banka** kontratatuta izatea. Klik bat bezain erraza da!



## BERRI ONAK

**Bi aukerak bateragarriak dira!**
**AurrezKlik &** kontu bat ireki dezakezu oporretarako eta **NET>GO! Aurrezkia** larrialdietarako.

| AURREZKLIK & epe laburreko helburuetarako | NET>GO! AURREZKIA larrialdietako funtserako |
|---|---|
| **Nola antolatuko naiz?** | |
| **Aldizkako ekarpenak** programa ditzakezu, eta diru-sarrera puntualez osatu edozein unetan. | **Hileko ekarpenen bidez soilik** funtzionatzen du (30 € gutxienez eta 1.000 € gehienez). Hileko zenbatekoa edonoiz aldatu ahal izango duzu. |
| **Atera dezaket nire dirua nahi dudanean?** | |
| Bai, inolako mugarik gabe. | Bai**, baina **1.000 €-koa da atera daitekeen gutxienekoa.** Kontuaren saldoa kopuru hori baino txikiagoa bada, dirua ateraz gero itxi egingo da kontua. |
| **Zenbat irabaz dezaket?** | |
| Gaur egun ez du ezer ordaintzen***. **UTBa: % 0** | Interes-tasa finkoa ordaintzen du, normalean aurrezki-kontuena baino handiagoa. Gaur egun, **% 3ko UTBkoa*** da lehen urtean. |
| **Non kontrata dezaket?** | |
| Online kontratatzen da. | Online kontratatzen da. Bulegoan ere kontrata dezakezu. |

**KONTRATATU EGIN NAHI DUT**

**Badago aldi berean AURREZTEA eta GOZATZEA.**
ANTOLATU ETA EZ GALDU EZER!



* Adibideko interesak kalkulatzeko, % 3ko ITNko **(% 3ko UTBko)** interes-tasa aplikatu zaio 2024ko abenduaren 1etik gordailuan metatutako zenbatekoari, eta egungo araudi fiskalaren arabera dagokion atxikipena ezarri zaio (% 19). Interes gordina: 39,04 euro; urtebeteren buruan zure aurrezki-gordailuan ordaindu beharreko interesa: 31,62 €. Beharrezkoa da gordailuari lotuta ageriko kontu bat izatea, gordailua formalizatu eta ezereztu ahal izateko. Interes hartzekodunak egunero kalkulatzen dira balorazio-daten arabera, eta gordailu horretan bertan ordainduko dira, urteko epealdiaren azken egunean.

** Urtebeteko epea; muga-egunean isilbidez berrituko da urtebeteko epealdietarako, berritze-egunean indarrean dagoen tasarekin, 2024ko abenduaren 1etik aurrera. Gordailuaren ezerezte aurreratua lehen urtean eskatuz gero, % 1,90eko ITNan **(% 1,90eko UTBan)** likidatuko da. Adibidea: zure NET>GO! Aurrezkian hilean 200 € sartzen badituzu eta 6 hilabete igarotakoan ezerezten baduzu, 1.200 € izango dituzu metatuta, eta 5,37 €-ko interesak jasoko dituzu.

*** ITNa: % 0; **UTBa: % 0**. UTBa kalkulatzeko, urtean 0 €-ko komisioa eta urte osoan konstante eutsitako 2.000 €-ko eguneko saldoa hartu dira aintzat. Betiere zorpekorik izan ezean, likidazioa egin beharreko hiruhilekoan.